

KANALAK

Bezeroekin komunikatu ahal izatea oso garrantzitsua dela azpimarratu behar dugu. Batez ere, beraiek dituzten arazoak eta iradokizunak konpontzen eta beraien aholkuak entzuten gure zerbitzua hobea izango dela uste dugu. Aipatu beharra dago gure bezeroa Lasarte-Oriako udaletxea izango zela baina zerbitzuak herriko emakumeei zuzenduta dago. Beraz, bi taldetan banatzen da komunikazio kanala. Lehenik udaletxea dugu, hauekin komunikatu ahal izateko, arazoak konpontzeko, aurrekontua zehazteko, proiektuaren prozesuak azaltzen juteko,... hainbat modu ditugu. Bata, egokiena, bilera bidez izango zen baina zaila da beti gizarte zerbitzuko zinegotziarekin elkartzea egun eta ordu librean edukitzea zaila delako. Hala ere, teknologia erabiliz komunikatu gaitezke, esaterako, posta elektronikoa bidez edo telefono bidez.

Beste aldetik, beste "bezeroak" Lasarte-Oriako emakumeak dira. Gure ustez, oso garrantzitsua da bezero hauekin komunikazio kanala edukitzea, batez ere beraiek direlako zerbitzua jasotzen dutenak eta beraiek izango aurkituko dituztelako eragozpenak eta aholkuak. Herriko emakumeekin komunikatzeko bi eratara izango litzateke, bai fisikoki eta baita birtualki.

-Fisikoki boluntarioak izango genituzke, herrian zehar emakumeei laguntzeko prest. Edozer galdera erantzuteko eta edozer iradokizun entzuteko prest egongo dira.

Gainera, gizartea konzientziatzeko eta boluntarioa izaten aimatzeko hitzaldiak antolatuko genituzke ikastetxeetan, enpresetan,... Azkenik Lasarteko aldizkariarekin hitz egitea pentsatu dugu gure proiektuaren artikulatu bat bertan, Txintxarrin, atera dadin herritarak jakinarazteko zerbitzuaren berri.

txintxarri

-Birtualki, idea orokorra BOMO deituriko aplikazioa sortzea da. Bertan bezeroek boluntarioen zuzeneko kokapena ikus dezakete eta horretaz gain, arriskuan edo beldurtuta ikusten badira larrialdietako botoia sakatzeko aukera izango dute. Aioagarria da, aplikazio honetako bezeroak emakumeak izango direla bakarrik, segurtasuna mantentzeko, eta kontu bat sortu beharko dute horretarako (erabiltzailea eta pasahitza erabiliz) honekin emakume bat bere mugikorrean batera gabe gelditzen denean beste mugikor batean erabiltzeko aukera ematen da. Aplikazioarekin batera web orri bat sortuko genuke non bertan gure informazioa guztia ikus dezaketen: nor gara, zer egiten dugu eta zergatik, aplikazioaren ezaugarriak,... eta bezeroen iradokizunak edota gomendioak jasotzeko lekua egongo da bertan.

Azkenik, gendeak gure berri jakinarazteko sare sozialak ere erabiliko genituzke proiektuari buruzko informazioa zabal dadin, besteak beste bideo bat sortuz eta hori instagram, Twitter, whatsapp eta facebook-en zabaldu.

